

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 295/2016 Erabakia, maiatzaren 17koa, erantzuten diena KBE ES21100016 “Aldaiako mendiak” kontserbazio bereziko eremuko “Zuzentarau eta neurrien” hasierako dokumentuaren aurka aurkeztutako alegazioei, eta behin betiko dokumentua onartzen duena, babestutako naturgune hori izendatzen duen dokumentuari III. eranskin bezala eransteko

Europako Batzordearen 2004ko abenduaren 7ko eta 2006ko uztailaren 19ko erabakien bidez, onespena eman zitzaion Aldaiako Mendiak ES2110016 eremua barruan sartuta zeukan eskualde biogeografiko atlantikoko Batasunaren garrantzizko lekuen (BGL) zerrendei, Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentarauaren arabera,

Kontseiluaren maiatzaren 21eko 92/43/EEE Zuzentarauak, habitat naturalak eta basa fauna eta landaredia zaintzeari buruzkoak, 4. artikuluan, eta abenduaren 13ko 42/2007 Legeak, natura ondare eta biodibertsitatearenak, 44. eta 45. artikuluetan xedatutakoaren bat etorritik, autonomia erkidegoek, jendaurrean jartzeko prozeduraren ondoren, BGL guztiak kontserbazio bereziko eremu (KBE) aitortuko dituzte, eta finkatu egingo dituzte beharrezko zaintze neurriak, eremu horietan dauden habitat natural moten eta espezieen eskakizun ekologikoei erantzuten dietenak. Zaintze neurriek berekin ekarriko dituzte kudeatze plan edo tresnak eta erregelamendu, administrazio edo kontratu neurriak.

Halaber, ekainaren 30eko 16/1994 Legearen testu bateratuak (natura babestekoa, Eusko Jaurlaritzak apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez onartuta) 22. artikuluan prozedurak definitzen ditu KBE izendatzeko eta dagozkien arauak eta kudeatze jarraibideak egiteko; hain zuzen ere, 2.5 paragrafoak hau xedatzen du:

Kontserbazio bereziko eremuak (KBE) eta hegaztien babes bereziko eremuak (HBBE) izendatzeko dekretuek kontuan hartuko dituzte Eusko Jaurlaritzak eremu horiek kontserbatzeko sortutako arauak. Eusko Jaurlaritzak eremu horiek kudeatzeko zuzentarauak eranskin gisa argitaratzeko agindua emango du.

Lurralde historikoetako foru organoek kudeaketa zuzentarauak onartuko dituzte, kontserbazio helburuak oinarri hartuta, honako hauek jasoko dituztenak: eremuak kontserbazio egoera egokian mantentzeko neurri egokiak, habitat naturalak eta espezieen habitatak hondatzea ekiditeko neurri egokiak eta inguru horien izendapena bultzatu duten espezieei eragiten dieten aldaketak ekiditeko neurriak. Plan horiek bereziki aintzat hartu beharko dituzte azalera osoa zein bere lurzoruaren zati handi bat leku horietan daukaten udalerrien beharrak. Baldintza horien arabera egingo diren zuzentarauak Eusko Jaurlaritzan eskumena duen sailari bidali beharko zaizkio, dagokion adierazpen dekretuaren eranskin gisa argitara ditzan.

Eusko Jaurlaritzak azaroaren 3ko 205/2015 Dekretuaren bidez, Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu zuen Aldaiako Mendiak ES2110016 KBE. Dekretu horren 3.2. artikulua xedatzen du Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren ebazpen bidez argitaratuko direla, dekretu honen eranskin gisa, Arabako Foru Aldundiak toki horretarako onartzen dituzten kudeaketa zuzentarau eta neurriak.

Testuinguru horretan, KBE izendatzeko prozesuak iraun zuen bitartean, Arabako Foru Aldundiak, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 17ko 80/2015 Erabakiaren bidez, hasierako onarpena eman zion Aldaiako Mendiak ES2110016 KBEren kudeaketa zuzentarau eta neurrien agiriari. Agiri hori bi hilabetez jarri zen jendaurrean, eta interesdunei entzunaldiko izapidea onartu zitzaion.

Izapideok beteta, aurkeztutako alegazioak eta iradokizunak Ingurumen eta Hirigintza Saileko Ondare Zerbitzuaren txostenean, erabaki honi erantsitakoan, jasotako moduan ebatzi, eta formazko beste akats batzuk aldatu ondoren, onartu egiten da behin betiko KBEren kudeaketa zuzentzarau eta neurrien agiria, Eusko Jaurlaritzaren 205/2015 Dekretuari III. eranskin gisa atxikitzeko.

Horregatik guztiagatik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 17ko 80/2015 Erabakiak onartutako Aldaiako Mendiak ES2110016 KBEren zuzentzarau eta neurrien hasierako agiriari entzundiko izapide garaian jendaurrean egon zen bitartean aurkeztutako alegazioei erantzundakoa, erabaki honi erantsitako Ingurumen eta Hirigintza Saileko txostenean jasotako moduan.

Bigarrena: Behin betiko onartzea Aldaiako Mendiak ES2110016 naturagune babestuaren kudeaketa zuzentzarau eta neurrien agiria. Naturagune hori KBE (Kontserbazio Bereziko Eremu) izendatu zen Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 3ko 205/2015 Dekretuaren bidez (2015eko azaroaren 23ko EHAA, 223. zk.), kudeaketa agiriari III. eranskin gisa atxikitzeko, aipatutako dekretuaren azken xedapenetatik lehenengoa adierazitako moduan.

Hirugarrena. Kudeaketa zuzentzarauak eta neurriak agirian jasotako kudeaketa neurriak gauzatzeko zuzkidura ekonomikoak kasuan kasuko aurrekontuekin onartuko den aurrekontu erabilgarria egotearen baldintzapean daude, eta, edozein kasutan ere, agiri horretako kalkulu ekonomikoa 92/43/EE Zuzentzarauaren 8. artikuluan aipatutako kofinantzaketa komunitarioari dagokionez beharrezko irizitakorako egiten da.

Laugarrena. Erabaki hau jakinaraztea Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politikako Sailari, jakinaren gainean egon dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

Bosgarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko maiatzaren 17a

Diputatu nagusia


RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintza zuzendaria

AMAIA BARREDO MARTÍN



2016ko martxoa

2



AURKIBIDEA

1. SARRERA

2. FUNTSEZKOAK DIREN EDO KUDEATU BEHAR DIREN ELEMENTUEN KONTSERBAZIO GIDALERRO ETA NEURRIAK

2.1. BASO MEDITERRANEO ESKLEROFIKOAKK ETA MARTZESZENTEAK

2.2. LARREAK ETA SASITZAK

2.3. FAUNA SAPROXILIKOA

3. KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK

3.1. BIODIBERTSITATEARI BURUZKO EZAGUTZAK ETA INFORMAZIOA

3.2. KOMUNIKAZIOA, HEZIKETA, PARTAIDETZA ETA HERRITARREN KONTZIENTZIAZIOA

3.3. GOBERNANTZA

3.4. ZEHARKAKO BESTE JARDUERA BATZUK

4. GUTXI GORABEHERAKO KALKULU EKONOMIKOA

1. SARRERA

Euskal Herriko natura babesteko Legearen Testu Bateratua, apirilaren 15eko 1/2012 Legegintzako Dekretuaren bidez onartuta, mekanismo jakin bat zehazten du espazioen babes figurak aztertzeko, erkidegoko araudiaren babesean sortuak, zehazki, Natura 2000 Sarean jasotako naturagune babestuekin lotuta.

Euskal Herriko natura babesteko Legeak, 22. artikuluko 5. idatz zatian, kontserbazio bereziko eremuen deklarazioaz ondokoa adierazten du: *"Lurralde historikoetako foru organoek kudeaketa planak egingo dituzte, kontserbazio helburuak oinarri hartuta, bere baitan honako hauek jasoko dituztenak: eremuak zaintze egoera egokian mantentzeko neurri egokiak, habitat naturalen eta espezieen habitaten hondatzea ekiditeko neurri egokiak, hala nola gune hauen izendapena bultzatu duten espezieei eragiten dizkieten aldaketak ekiditeko neurriak".*

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren azaroaren 3ko 205/2015 Dekretuaren bidez, «Aldaiako mendiak» (ES2110016) Kontserbazio Bereziko Eremu izendatu zen, kontserbazio neurriekin batera (223. EHAA, 2015eko azaroaren 23koa).

Dokumentu honetan, ES2110016 Aldaiako Mendiak KBEa **Kudeatzeko Gidalerroak eta Neurriak** ezartzen dira, 205/2015 Dekretu horretan ezarritako kontserbazio helburuen oinarriaren gainean.



2. FUNTSEZKOAK DIREN EDO KUDEATU BEHAR DIREN ELEMENTUEN KONTSERBAZIO NEURRIAK

2.1. BASO MEDITERRANEO ESKLEROFITOAK ETA MARTZZESZENTEAK

1. Azken helburua	Basoen gaur egungo azalerari eustea eta baso kudeaketa egokia ezartzea, hau da, basoaren aldeko kontserbazio egoerari dagokion naturaltasun maila eta egitura konplexutasuneko maila lortzearekin bateragarria izango dena.
1.1. Helburu operatiboa	Baso autoktonoak kontserbatzea, haien naturaltasuna eta egitura konplexutasuna hobetuta.
Kudeaketa gidalerroak	G1- Fisiografia naturalaren aldaketa eragingo duten urbanizazio, eraikuntza eta jarduerak baimentzea saihestuko da, baldin eta eremuko babesari edo kudeaketari, ikerketari, ingurumen hezkuntzari edo zientzia zabalkundeari lotuta ez badaude. G2- Intereseko zuhaltz autoktonoen presentziari eutsi egingo zaio eta areagotu egingo da (zaharkituak, lepatuak, oso zaharrak, handiak, adartsuak, bigarren mailako espezieak, pizidoen habiak dituztenak, eta abar). G3- Zuhaitzen eta zuhaixken espezieen aniztasuna areagotzea sustatuko da. G4- Mozketak eta basoko gainerako jarduerak baso autoktonoen egitura aniztasuna handitzera eta joera hori mugatzen duten eragileak ezabatzea bideratuta daude. G5- Zutik dagoen eta etzanda dagoen zur hila, hainbat tamaina, deskonposizio egoera eta adinetakoa, sustatuko da, eta batez ere enborrik handienak mantenduko dira. G6- Baso landaketetan helburu nagusia baso potentziala leheneratzea izango da. Beraz, mozteko txanda iristen denean, laguntza publikoak batez ere basoak birsortzeko pizgarriak emateko banatuko dira, eta ez espezie exotikoak landatzeko edo jatorrizko basoa leheneratzea helburu ez duen beste edozein jardura egiteko. G7- Basoen kudeaketa basogintzako irizpideen arabera egingo da, naturatik hurbil, soilgune handiak zabaldu gabe, beharrezkoa izan ezean osasun, birsorkuntza edo teknikoki justifikatutako kausengatik. G8- Edozein helmuga duten zuhaitzen seinalatzeetan, ornogabe saproxilikoak, hegaztien edo saguzarren espezieak kontserbatzeko garrantzitsuak diren interes-oinak babestuko dira. G9- Zuraren eta egurraren aprobetxamenduan, hildako zur bolumena handitzea sustatuko da.

**Kudeaketa
gidalerroak**

G10- Saihestu egingo dira funtsezko espezieen edo kudeaketarako xede diren eta babes bereziko araubidekoak diren florari eta faunari (batez ere habiak egiteko eta kumeak hazteko aldietan) gorabehera garrantzitsuak eragin diezazkiokeen KBeko basoetako jarduerak. Ildo horretan, ondokoak egin beharko dira:

- Lan egutegia prestatu beharko da, habiak egiteko eta kumeak hazteko aldietan munta handieneko lanak egin ez daitezen, batez ere apirila eta uztaila artean.
- Zarata maila handia eragiten duten edo bat-bateko zaratak sortzen dituzten lanak saihestu beharko dira habiak egiteko eta kumeak hazteko aldietan, batez ere apirila eta uztaila artean.
- Habiak egiteko eta kumeak hazteko eremuetatik lanak egiten diren lekuetara tarte egokia utzi beharko da, betiere dagokion eremua adierazita, eta batez ere apirila eta uztaila artean. Horretarako, lanik egin behar ez den eta makinarik ibili behar ez den eremuak mugatuko dira (zinta batekin edo antzeko modu batean).
- Ur puntuak babestu beharko dira, urteko sasoiaren arabera ohikoa den ur maila manten dadin eta uraren gehituko duten edo partikula esekien kontzentrazioa gehituko duten jardunak egin ez daitezen, jalkinen ekarpena gerta ez dadin, eta ura kutsa dezaketen gaiak isur ez daitezen.

G11- Mendi publikoak antolatzeke plana jarraibide hauen arabera egingo da:

- a) Aldalako mendiak Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko ballatutako kontserbazio helburuak kontuan hartuko dira.
- b) Lurraldean garatzen diren erabilerak eta aprobetxamenduak plangintzan jasoko dira, arreta berezia jarri zuraren ekoizpenean, artzaintzan eta balio naturalen hobekuntzan eta kontserbazioan.
- c) Baso suteen aurkako defentsa neurriak, hala nola, soiltzeak, mozketak eta suebakiak plangintzan jasoko dira.
- d) Ohiko aprobetxamenduak (zura, egurra eta larrea) sustatuko dira kontserbaziorako ezinbesteko erabilera gisa.
- e) Lapatutako zuhaitzak eta interes bereziko zuhaitzak (faunarako balio handikoak, ondare balioa dutenak, bereziak, besteak beste) kontserbatzeko neurriak ezarri eta identifikatuko dira.
- f) Zur hilaren kantitatea aztertu eta, hala badagokio, kantitate hori handitzeko neurriak ezarriko dira.
- g) Hondatzeko arriskua duten zuhaitziak identifikatuko dira, eta prebentziorako edo kalteak konpontzeko neurriak zehaztuko dira (itxiturak, abeltzaintza zama arautzea, basoberritzea, eta abar).

Kudeaketa gidalerroak	h) Larreen aprobetxamendu plana sartuko du KBE osorako. Beraren barruan, landare formazioen abeltzaintza erabilera haietako bakoitzerako definitutako helburuekin bateragarria den edo ez aztertuko da, kontuan izanik ganadua maneiatzeko zehaztapenak, ganadu mota, artzaintza egutegia, abere zamak eta aprobetxatu beharreko azalera. i) Zuhaitzi bilakatzekotan dauden sasitza eta larreen azalera identifikatuko dira, baita zuhaitzi bilakatzeko bidean daudenak kontserbatzeko neurriak ere, hala badagokio. j) Naturaltasun maila gehituko dute, arauak xedatzen dutena kontuan hartuta. k) Baso inbentarioaren diseinuan jasoko dira basoen kontserbazio egoeraren jarraipena egiteko datuak. D12- Mendiak antolatzeke plan horretan azaltzen diren ondorioen arabera, basoen abeltzaintza erabileraren baldintzak ezarriko dira. Erabilera hori 1. helburu/helmuga lortzearen baldintzapean egongo da. D13- Egur eskaera batik bat soilteetan eta mozketetan egiten den erauzketa selektiboaren bidez aseko da, enbor ugariko oinen artean ahulenak aukeratuz eta, betiere, lekuko osotasun ekologikoa kontserbatzeko eta mantentzeko helburuak bermatuko dira. D14- Neurri eta mugaketa egokiak ezarriko dira ez dadin egin egurra ateratzeko biderik edo pista berririk egin. Helburu horrekin gaur egungo bide azpiegitura aztertuko da, baita KBEaren helburuen aurrean duen eraginkortasun maila ere. D15- Basoak larreekiko ertzetan atzera ez egiteko beharrezkoak diren neurriak eta mugak ezarriko dira, baita hiltzen edo ahultzen ari diren zuhaitzak agertzen dituzten bazkatoki bihurtutako eremuak berreskuratzeko ere. D16- Jabetza partikularreko baso edo landazabaletan baso akordioak edo kontratuak sustatuko dira, intereseko landazabalak eta zuhaitziak kontserbatzeko. D17- Administrazio publikoek KBEan sartutako mendi pribatuaren lursailen gainean duten erosteko lehentasunezko eskubidea baliatuko dute, 11/2007 Foru Arauak, mendienak, ezarritako baldintzetan.
Jarduerak	1.- Kontserbazio egoera ebaluatzea, KBEko basoen parametro kuantitatiboetan oinarrituta, Baso Inbentarioko lurzatiaren sarea erabiliz. Lan horiek kontserbaziorako interesa daukaten zuhaitzak (zaharkituak, lepatuak, handiak, adartsuak, bereziak, bigarren mailako espezieak, pizidoen habiak, saguzaharreen babeslekuak edo hutsarteak dituztenak, eta abar) eta faunarentzat interesa duten lekuak (urmaelak, putzuak, ihitzak etab) elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario ireki geoerreferentziatua sartuko dituzte. 2.- Aurreko ebaluazioaren emaitzen arabera, zuhaitz bereziak

Jarduerak	babestea eta basoen egiturazko konplexutasuna handitzeko neurriak proposatzea eta hartzea. 3.- Mendi publikoen antolaketa plana idaztea, aipatutako jarraibideak betez. 4.- Azterlan bat egitea, zur hilaren balioak orientatzea ahalbidetzen duena, KBEaren helburuak bete ahal izateko moduan, kontuan izanik habitat motak, zuhaitzien garapen egoerak, erabilerak, espezieen beharrianak eta beste batzuk. 5.- Mozketa esperimentalak egitea, bai erkameztien lurzati bai karraskalen lurzati bihurtzeko, mozketa horiek egiteak beraien egonkortasuna eta dibertsitate biologikoa eta konplexutasun estrukturala hobetzeko daukan emaitza ebaluatzeko helburuz. 6.- Basoetako suteak prebenitzeko eta itzaltzeko eremu estrategikoetan basoko jarduerak egingo dira basoen urrakortasuna murrizteko helburuz, adibidez mendi garai erregular bihurtzeko mozketak, soiltzea, inaustea edo balizko sasi garbiketak. 7.- Aberasteko landaketak egitea larre ertzetako basoen atzerakada saihesteko, birsorkuntzarako banakako itxituren edota itxitura txikien bidez. Itxiturak modu irregularrean egingo dira, soilguneak eta trantsizioko arloak sortzeko bide emateko, belardi eta baso artean. 8.- Zuhaitz lepatuen unadetan tratamenduak. Horretarako 1-2 hektareako lurzatiak hautatuko dira, erkametz lepatuen dentsitate egokiarekin, mantentze lanak egiteko asmoz. Lan horien artean zuhaitz gazteak kentzea, sastrakak garbitzea eta abar egon daitezke.
------------------	--

2.2. LARREAK ETA SASITZAK

2. Azken helburua	Batasunaren intereseko larre eta sasitzen %85ko azalera garbia kontserbatzea eta mosaiko itxuran banatzea.
2.1. Helburu operatiboa	Batasunaren intereseko larre moten gaur egungo azalera mantentzea gutxienez, eta mosaiko egiturari eustea.
Kudeaketa gidalerroak	G18- KBEaren larre eta txilardien mosaiko egitura eta berezko biodibertsitatea kontserbatu eta hobetzea. G19- KBEko mendi publikoak antolatzeke planaren barruan, larre aprobetxamendua antolatzeke plana egingo da. Plan horretan,

Kudeaketa gidalerroak	Batasunaren intereseko edota lehentasunezko landaretza formazioen eta habitaten abeltzaintzako erabilera haietako bakoitzarentzat ezarritako helburuekin bateragarria izan beharko da. Horrenbestez, abere zama ezberdinak, ganadu motak, maneiatzeara, egutegiak, larreak hobetzeko jarduerak, bazkatzeko ez diren aldean zonakatzeara, bide eta ganadu azpiegiturak, eta planak ezarritako kontrol prozedura hartuko dira aintzat. G20- Abere aprobetxamenduaren antolaketatik ateratzen diren ondorioen arabera, jarduera egokiak egiteko ganaduaren titularrekin akordioak egitea sustatuko da, bai uhaskak edo ukuiluak KBEaren mugetatik kanpo jartzeko bai KBEaren perimetroko itxiturak egiteko zuzeneko laguntzak emanez, edo beste laguntza batzuk emanez. Gainera, erakunde jabeekin akordioak egitea sustatuko da, diru-sarrerren galerak (baleude) konpentsatzeko. G21- Larre aprobetxamendua antolatzeko planean, zehatz-mehatz arautuko dira funtsezkoak diren edo babes bereziko araubidea daukaten larre eta txilardietan eragin ahal duten jarduerak, baita larre mesofiloak (EB kodea: 6210 eta 6210*) mantentzearen eta sasitzak (EB kodea: 4090) mantentzearen edo katalogatutako gainerako habitat mantentzearen gainekoa ere. G22- Larre eta txilardien mosaiko egituraren adierazle kuantitatiboen erreferentziako balioak zehaztuko dira. Hartara, larre eta sasitzen azalera eta banaketa kontuan hartzen dituen heterogeneotasun indizea definituko da. G23- Abeltzaintzako azpiegitura hobetzeko neurri guztiek beharrezkoak diren ingurumen baldintzak eta neurri zuzentzaileak (organo kudeatzale eskudunak ezarriko dituenak) eduki beharko dituzte, babes bereziko araubidea daukaten larre eta sasitzen gaineko inpaktuak murrizteko (Batasunaren intereseko edota lehentasunezko habitatak). G24- Larreak antolatzeko planak sakonera urriko lurzoruetan egiten diren larreen aprobetxamendua arautuko du. Ardien presentzia bakarrik baimenduko da, eta betiere kopuru txikietan. Abere aprobetxamenduko eremuetatik baztertuko dira higadura arazo larriek ukitutako gunek. G25- Itxitura berriak eraikitzean kontuan hartu beharko da basoko fauna bertatik igarotzeko material egokiena.
Jarduerak	9.- KBE osorako larre aprobetxamendua antolatzeko plan bat idaztea. 10.- Aurreko puntutik ateratzen diren ondorioen arabera, jarduera egokiak egiteko ganaduaren titularrekin akordioak egitea sustatuko da, bai uhaskak edo ukuiluak KBEaren mugetatik kanpo jartzeko bai KBEaren perimetroko itxiturak egiteko

2016ko martxoa

9

Jarduerak	zuzeneko laguntzak emanez, edo beste laguntza batzuk emanez. Gainera, erakunde jabeekin akordioak egitea sustatuko da, diru-sarreraren galerak (baleude) konpentsatzeko. 11.- Larre eta sasitzen komunitateen espazio eta denbora eboluzioaren jarraipena egiteko protokolo bat egingo da, aurreko neurrien adierazleak kontrolatzeko lurzatietan aireko irudiak analizatuz eta jarraipena eginez. 12.- Putzuak bentonitaz iragazgaiztuko dira (edo beste material naturala batekin, plastikoa ez dena), itxi egingo dira, ganadua ez dadin sartu eta uhaskak jarriko dira.
------------------	--

2.2. FAUNA SAPROXILIKOA

3. Azken helburua	Arriskuan dauden ornogabe saproxilikoek populazio egonkorra mantentzea, erkameztien harrera ahalmenaren araberakoak, eta erkameztien kalitatea hobetzea.
3.1. Helburu operatiboa	Arriskuan dauden koleoptero saproxilikoek espezieen egungo kontserbazio egoera eta egoera ona behar bezala ezagutzea, eta espezie guztientzako habitat egokia bermatzea.
Kudeaketa gidalerroak	G26- Arriskua dauden espezieen ezagueran sakontzea
Jarduerak	13.- Arriskuan dauden koleoptero saproxilikoek hiru espezieentzako jarraipen protokolo bat egingo da. 14.- Espezie saproxilikoek egungo kontserbazio egoera zehatz-mehatz definituko da, beraien banaketaren eta ugaritasunaren arabera, metodologia espezie aztergaien berezitasunei egokituz eta kolonizazio tasa kalkulatu. Emaizak KBEaren eremuan eragina eta eskumena dauzkaten gizarte eragileek eta administrazioen artean zabalduko dira.
3.2. Helburu operatiboa	Espezie guztientzako habitat egokia bermatzea.
Kudeaketa gidalerroak	G27- Arriskuan dauden espezieen habitata babestea, neurri espezifikoekin eta intereseko habitat errehabilitazioak.
Jarduerak	15.- Espezie saproxilikoek egungo kontserbazio egoera azterlanetik aurrera, espeziearentzat interesgarriak diren zuhaitzen tipologia zehaztuko da, baita beraien elikatzeko eremuak



	ere. Beharrezkoa bada, dokumentu honetan sartu ez diren eta beharrezkoak diren jarduerak proposatuko dira. 16.- Zuhaitz lepatu interesgarriak mekanikoki kolapsatzeko arriskua diagnostikatuko da eta erortzea galaraziko da. Zuhaitz horiek mantentzea eta heltze naturaleko zuhaitzekin ordezkatzeko planeatuko da. 17.- Erkameztien barruko soilguneak kartografiatuko dira, eta kasu bakoitzean helduentzat interesa daukaten espezie sekundarioak mesedetzeko baso lan egokiak definitu eta egingo dira. 18.- KBEko basoetan dagoen zur hila kalkulatu ondoren eta 4. puntuan jasotako azterlanaren ondorioetan oinarrituta, behar den zur hila, zutik nahiz etzanda dagoena, hornitzeko jarduerak zuzenduko dira. Egurretarako urtean ateratzen den zuraren bolumena kalkulatu da eta ziurtatuko da eskaera asetzea bateragarria dela basoetan zur hil nahikoa mantentzearekin.
3.3. Helburu operatiboa	Espezie saproxilikoek garrantzia zabaltzea.
Jarduerak	19.- Intsektu saproxilikoek garrantziari eta zuhaitz hila edo zaharrarari dagokionez setsibilizazio kanpainak disenatzea eta egitea, populazio lokalari eta administrazioen pertsonalari zuzenduta.

3. KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK**3.1. Biodibertsitateari buruzko ezagutzak eta informazioa**

4. Azken helburua	Ahalik eta zehaztasun gehienez ezagutzea Aldaiako Mendiak KBEaren biodibertsitatearen kontserbazio egoera eta zein den kontserbazio egokirako egoera, bai eta galera edo suntsiketa eragin dezaketen kausak zein diren zehaztea ere, horrela, epe luzerako mantentzea bermatu dezaketen beharrezko neurriak berriro diseinatzeko eta egokitzeke.
4.1. Helburu operatiboa	Aldian behin eguneratzen den kartografia dago kontserbaziorako interesekoak diren habitat guztietarako, bai eta dibertsitate biologikorako eta integritate ekologikorako garrantzitsuak diren elementu edo gune naturalena edo kulturalena ere.
Jarduerak	20.- Aldian behin EUNIS landarediaren mapa eta habitaten mapa eguneratzeko protokoloa zehaztea eta, horretarako, bereziki azpimarratzea bilakaera naturalak edo gizakiaren esku hartzeak eragindako aldaketak, bai eta azalera murriztuko eta aurreko kartografietan antzeman ez diren habitatei buruzko ezagutzen inguruko hobekuntzak sartzeko ere. 21.- Barrundia udalerriak, dagoeneko badagoen instalazioan, liburutegia edo dokumentazio zentroa izan dezala sustatzea, KBEko eta inguruetako ingurumen informazioarekin, eta sortzen doan informazio berria eta dibulgazio-laburpenak sar dezala. 22.- "Basoko fauna eta florarako baliozko elementu naturalen, kulturalen eta geomorfologikoen inbentario zabal georreferentziatua" sortzea, besteak beste, zuhaitz hiletarako edo zuloak dituztenetarako, ur ibilera txikietarako, aldi baterako putzu eginda dauden lurretarako, urmaeletarako, heskaletarako, landa bideetarako, bidexketarako, azaleratze geologikoetarako etab. Elementu bakoitza bereizteko, gutxienez, interesa eta koordinatu zehatzak adierazi beharko dira.
4.2. Helburu operatiboa	Habitaten eta babes bereziko araubidean dauden basa espezieen eta funtsezko elementuen edo kudeaketaren helburu direnen kontserbazio egoera ezagutzen da.
Jarduerak	23.- Habitaten eta babes bereziko araubidean dauden basa espezieen kontserbazio egoerari buruzko fitxa egitea, informazioa azkar erabili ahal izateko, Habitaten Zuzentzarauaren 17. artikuluan ezarritako informazio estandarizatuaren berri emateko beharrak betetze aldera.



4.3. Helburu operatiboa	Kalkulu bat edukitzea KBEaren biologia aniztasunak duen balio ekonomikoarena, baita ekosistema autoktonoek eskaintzen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuen ere.
Jarduerak	24.- Azterlan bat egitea tresna honetan jasotzen diren neurriak aplikatzeagatik errenta murrizten duten jarduerari eta, izatekotan, errenta galera hori orekatzeko zenbateko eta bitartekoei buruzkoa. 25.- Aldaiako Mendiak KBEko dibertsitate ekologikoaren eta ekosistema autoktonoek ematen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuen balio ekonomiko osoa aztertzea.
4.4. Helburu operatiboa	KBEko eta inguruko basa faunaren heriotza ez naturala adierazteko mapa bat egiten da, bertan puntu beltzak adierazita.
Jarduerak	26.- Pozoidudarik Egotekotan Jarduera protokoloa onartzea eta aditu-frogak egiteko gomendioekin dokumentu teknioa egitea. 27.- Urtero, Aldaiako Mendiak KBEtik eta bere Babes Eremu Periferikotik Martiodako Basoko Fauna Berreskuratzeko Zentroan sartzen diren basoko espezieen erregistroak bilduko dira. 28.- Herritarrei, abeltzainei, jabeai, basozainei, mendi elkarteei, sindikatuai, ehiztariari, albaitariari eta lurraldean dauden beste kolektibo batzuei erregistro hau egin dela jakinaraziko zaie, hautemandakoa administrazio eskuduneko langilei jakinarazteko. 29.- Eskuratutako informazioaren bidez, istripu ugariko guneen mapa egingo da. Aldian behin, mapa eguneratuko da eta neurri zuzentzaileak proposatuko dira, plan honetan eta hurrengoetan sartzeko. 30.- Urtero, basoko faunako heriotza ez naturalen, hartutako neurri zuzentzaileen eta horien emaitzen inguruko txostena egingo da, eta, horrela, interesa duten pertsonak eta erakundeak horretara jo ahal izatea bermatuko da.

3.2. Komunikazioa, heziketa, partaidetza eta herritarren kontzientziakzioa

5. Azken helburua	Aldaiako Mendiak KBEan eragina duten erabakiak hartzeko prozesuetan gizarte partaidetza sustatzea, bai eta herritarren partaidetza ere kontserbaziorako.
5.1. Helburu operatiboa	Aldian behin herritarrei KBEan biodibertsitatearen kontserbazio egoerari buruzko informazio ulergarria zabaltzea, bai eta ingurumeneko laguntzei, egoera ahulak dakartzaten kausei, horren inguruko politika publikoei eta emaitzei buruzko informazioa ere.
Jarduerak	31.- Arabako Foru Aldundiaren web orrialdean Aldaiako Mendiak KBEari atal berezia eskaintzea eta hura eguneratzeko mekanismoa aurreikustea. 32.- Flora eta faunaren, habitaten eta prozesu ekologikoen kontserbazio neurriei eta, batez ere, bioaniztasunaren zaintzan laguntzea duten ohiko jardueri buruzko komunikazio eta informazio programa sortzea, eragina jasan dezaketen edo aktiboki neurri horietan inplika daitezkeen gizarte sektoreentzako. Barrundiako udaletxean eta udalerriko herriguneetako kontzeju etxeetan, eta horiek hartarako baimena ematen badute, KBEari eta Natura 2000 Sareari buruzko informazio panelak jarriko dira. 33.- KBEari eta haren helburuei buruz herritarrek duten ezagutza, jarrera eta jokabidea aztertzeako aldizkako ebaluazioak egitea; horrela, komunikazio, heziketa eta kontzientziatze ekintzak berriro orientatu ahal izango dira. 34.- Aldaiako mendietako KBEaren kudeaketan eta zaintzan zerikusia duten ingurumen eta sektore administrazioak elkartzeako foro bat sortzea eta garatzea: administrazio batzarrak, udalak, Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurilaritza... 35.- KBEan zaindu beharreko gaiak kontserbatzeari lotuta, baso kudeaketa jasangarriak sortzen dituen ingurumen onurei buruzko dibulgaziozko kanpainak garatzea.

3.3. Gobernantza



6. Azken helburua	Organo publiko eskudun guztien erakunde koordinazioa hobetzea eta ingurumen eta sektore araudi guztia egokitzea, dokumentu honen helburuarekin eta xedeekin eta horiek lortzeko ezartzen dituen jarduera, jarraibide eta araukin bat etortzeko.
6.1. Helburu operatiboa	Batzorde tekniko iraunkorra sortzea, Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitate Zuzendaritzaren jarduerak eta Arabako Foru Aldundiarenak koordinatzeko, Aldaiako Mendiak KBEan.
Kudeaketa gidalerroak	G28- Natura 2000 espazioen eremu natural babestuen izaera kontuan hartuta, administrazioek onesten dituzten lurralde antolamendurako tresnek eta hirigintzako plangintzakoek saihestuko dute artifizializatzea eta sailkapena lurzoru urbanizaezinetik lurzoru urbanizagarrira edo hiritarrera aldatzea, arlo horietan dauden habitat naturalak eta espezieak kontserbatzen direla bermatzeko.
Jarduerak	36.- Aurreikusitako neurrietan ahalik eta eraginkortasunik handiena lortzeko, Foru Aldundiaren sallekina eta Eusko Jaurlaritzaren sallekina edo KBEan eskumenak dituzten beste administrazio batzuekin eta tartean diren udalekin eta administrazio batzordeekin beharrezko hitzarmenak eta gainerako koordinazio mekanismoak ezarriko dira.
6.2. Helburu operatiboa	Gauregungo ingurumen eta sektore araudi guztia egokitzea, dokumentua errezeago aplikatzeko.
Jarduerak	37.- KBEa osorik edo zati batean aplikazio eremu duten kudeaketa agiriak berriro aztertuko dira, ehiza esparruen kudeaketa planak barne, naturgune honen kudeaketa agirian ezarritakoari egokitu daitezen.

3.4. Hondatuta dauden eremuak leheneratzea eta konektibitate ekologikoa

7. Azken helburua	KBEko esparru degradatuak inbentarioan sartu eta inguruko beste batzuekin leheneratzea.
7.1. Helburu operatiboa	Dauden isurketa iturriak eta beste eragin batzuek (higadura, harrobi eta legardi zaharrak) hondatutako eremuak antzematea eta halakoak lehengoratztea.
Jarduerak	38.- Inpaktuak (higadurak, legar hobi eta harrobi zaharrak, eta abarrekoak) jasan dituzten eremuak leheneratzea, eta espazio hauetan ingurumena leheneratzea. 39.- Kontrolik gabeko isurketak eta bestelako eraginak jasaten dituzten gunek leheneratuko dira; horretarako, hau aurreikusiko da: - Hondakinak kentzea, eta geroago tratatu eta behar bezala kudeatzea. - Hondatuta dauden espazioak ingurumen aldetik leheneratzea, babestutako habitatak leheneratzeko.
7.2. Helburu operatiboa	Inguruko beste KBE espazio batzuekin konektibitatea dagoela ziurtatzea.
Kudeaketa gidalerroak	G29- Lotura ekologikoaren arloan onartutako estrategiak aplikatzea, KBEan batasunaren intereseko edota lehentasunezko habitaten arteko lotura bultzatzeko, bai eta hurbil dauden Natura 2000 Sareko beste habitat katalogatu batzuekin eta orokorrean mugakide diren eta ingurumen aldetik interesa duten esparruekin ere. Konektibitatearen aldetik interesgarriak diren eremuak identifikatzea, eta horiek kontserbatzeko eta hobetzeko jarduerak egitea. G30- KBEaren barruan nahiz haren inguruan ingurumen interes handia duten eremuak konektatzen dituzten heskaiak eta baso txikiak identifikatzea eta kartografiatzea sustatuko da. Kartografia egin ondoren, heskairik eta baso txikirik garrantzitsuenak aukeratuko dira, eta horiek kontserbatzeko neurriak proposatuko dira.
Jarduerak	40.- Lur pribatuen jabeekin akordioak sustatzea, konektibitate ekologikorako interesa duten espazioen kontserbazioa sustatzeko. 41.- KBE inguruko gunetan edo horietatik hurbil daudenetan, gaur egun landaredi natural belarkaraz, zuhaixka formakoaz edota zuhaizkaraz estalita daudenetan, habitatak kontserbatzeko

2016ko martxoa

16

eta hobetzeko ekintzak sustatzea.

42.- Inguruko nekazari guztiei heskaien eta horien kontserbazioaren garrantziaren berri ematea.



4. JARDUEREN ETA KUDEAKETA NEURRIEN PROGRAMA. GUTXI GORABEHERRAKO KALKULU EKONOMIKOA

Apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko natura kontserbazteko Legearen testu bateratua onartzen duenak, 22. artikuluan ezartzen duena betetzeko, jarraian programa honetako jarduera eta neurriei dagozkien kalkulu ekonomikoak zehaztuko dira.

22.3. artikulua:

Txostenak, bere tramitazioaren hasierako faseetatik hasita, memoria ekonomiko bat izango du, zeinak espresuki jasoko dituen 92/43/EE Zuzentarauaren 8. artikuluan jasotako baterako finantzaketa komunitarioaren arabera beharrezkotzat hartzen diren aurreikuspenak.

Jarraian, aipatu den 8. artikuluko hori transkribatuko da, zehazki 1. eta 2. puntuak:

1. Kontserbazio bereziko eremu izendatu ahal diren eta barnean lehentasunezko habitat naturalak edota lehentasunezko espezieak dituzten lekuei buruz proposamenak egiten dituzten aldi berean, Estatu kideek Batzordeari haien kalkuluak bidaliko dizkiote, bidezkoa denean, Europako Batasunaren finantzaketari buruz egokitzen dutena dela-eta, 6. artikuluko 1. idatz zatian hitzartuta dagoenaren arabera haien betebeharrak bete ahal izateko.
2. Estatu kide bakoitzarekin ados jarrita, finantzaketa eskatzen deneko leku garrantzitsuetarako, Batzordeak zehaztuko ditu ezinbestekoak diren neurriak, lehentasunezko habitat naturalen kontserbazio egoera mantendu edo leheneratzeko, eta neurri horien ondoriozko kostu osoak ere zehaztuko ditu.

2016ko martxoa

18

2.1.1.- BASO MEDITERRANEO ESKLEROFITOAK ETA MARTZESZENTEAK

NEURRIA EDO JARDUERA		COSTE (€)
1.- Kontserbazio egoera ebaluatzea, KBEko basoen parametro kuantitatiboetan oinarrituta, Baso Inbentarioko lurzatieen sarea erabiliz. Lan horiek kontserbaziorako interesa daukaten zuhaitzak (zaharkituak, lepatuak, handiak, adartsuak, bereziak, bigarren mailako espezieak, pizidoen habiak, saguzaharreen babeslekuak edo hutsarteak dituztenak, eta abar) eta faunarentzat interesa duten lekuak (urmaelak, putzuak, ihitzak etab) elementu natural, kultural eta geomorfologikoen inbentario ireki georreferentziatua sartuko dituzte.		5 000
2.- Zuhaitz bereziak babestea eta basoen egiturazko konplexutasuna handitzeko neurriak proposatzea eta hartzea.		40 000
3.- Mendi publikoen antolaketa plana idaztea, aipatutako jarraibideak betez.		25 000
4.- Azterlan bat egitea, zur hilaen balioak orientatzeko ahalbidetzen duena, KBEaren helburuak bete ahal izateko moduan, kontuan izanik habitat motak, zuhaitzien garapen egoerak, erabilerak, espezieen beharrianak eta beste batzuk.		5 000
5.- Mozketa esperimentalak egitea, bai erkameztien lurzati bai karraskalen lurzati bihurtzeko, mozketak horiek egiteak beraien egonkortasuna eta dibertsitate biologikoa eta konplexutasun estrukturala hobetzeko daukan emaitza ebaluatzeko helburuz.		60 000
6.- Basoetako suteak prebenitzeko eta itzaltzeko eremu estrategikoetan basoko jarduerak egingo dira basoen urrakortasuna murrizteko helburuz, adibidez mendi garai erregular bihurtzeko mozketak, soltzea, inautzea edo balizko sasi garbiketak.		40 000
7.- Aberasteko landaketak egitea larre ertzetako basoen atzerakada saihesteko, birsorkuntzarako banakako itxituren edota itxitura txikien bidez. Ixtituran modu irregularrean egingo dira, soilguneak eta trantsizioko arloak sortzeko bide emateko, belardi eta baso artean.		15 000
8.- Zuhaitz lepatuen unadetan tratamenduak. Horretarako 1-2 hektareako lurzatiak hautatuko dira, erkametz lepatuen dentsitate egokiarekin, mantentze lanak egiteko asmoz. Lan horien artean zuhaitz gazteak kentzea, sastrakak garbitzea eta abar egon daitezke.		15 000



2016ko martxo

19

2.2.- LARREAK ETA SASITZAK

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
9.- KBE osorako larre aprobetxamendua antolatzekeo plan bat idaztea.		3. jardueran sartu da
10.- Aurreko puntutik ateratzen diren ondorioen arabera, jarduera egokiak egiteko ganaduaren titularrekin akordioak egitea sustatuko da, bai uhaskak edo ukuluak KBEaren mugetatik kanpo jartzeko bai KBEaren perimetrotako itxiturak egiteko zuzeneko laguntzak emanez, edo beste laguntza batzuk emanez. Gainera, erakunde jabeekin akordioak egitea sustatuko da, diru-sarrerren galerak (baleude) konpentsatzeko.		30 000
11.- Larre eta sasitzen komunitateen espazio eta denbora eboluzioaren jarraipena egiteko protokolo bat egingo da, aurreko neurrien adierazleak kontrolatzeko lurzatietan aireko irudiak analizatuz eta jarraipena eginez.		2 000
12.- Putzuak bentonitzaz iragazgaiztuko dira (edo beste material naturala batekin, plastikoa ez dena), ibxi egingo dira, ganadua ez dadin sartu eta uhaskak jarriko dira.		60 000

2.3.- FAUNA SAPROXILIKOA

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
13.- Arriskuan dauden koleoptero saproxilikoak hiru espezieentzako jarraipen protokolo bat egingo da.		2 000
14.- Espezie saproxilikoak egungo kontserbazio egoera zehatz-mehatz definituko da, beraien banaketaren eta ugartasunaren arabera, metodologia espezie aztergaien berezitasunei egokituz eta kolonizazio tasa kalkulatu. Emaitzak KBEaren eremuan eragina eta eskumena dauzkaten gizarte eragileen eta administrazioen artean zabalduko dira.		2 000
15.- Espeziearentzat interesgarriak diren zuhaitzen tipologia zehaztuko da, baita beraien elikatzeko eremuak ere. Beharrezkoa bada, dokumentu honetan sartu ez diren eta beharrezkoak diren jarduerak proposatuko dira.		2 000
16.- Zuhaitz lepatu interesgarriak mekanikoki kolapsatzeko arriskua diagnostikatuko da eta erortzea galaraziko da. Zuhaitz horiek mantentzea eta heltze naturaleko zuhaitzekin ordezkatzeko planeatuko da.		3 000

2016ko martxoa

20

17.- Erkameztien barruko soliguneak kartografiatuko dira, eta kasu bakoitzean helduentzat interesa daukaten espezie sekundarioak mesedetzeko baso lan egokiak definitu eta egingo dira.	5 000
18.- KBEko basoetan dagoen zur hila kalkulatu ondoren eta 4. puntuan jasotako azterlanaren ondorioetan oinarrituta, behar den zur hila, zutik nahiz etzanda dagoena, hornitzeko jarduerak zuzenduko dira. Egurretarako urtean ateratzen den zuraren bolumena kalkulatu da eta ziurtatuko da eskaera asetzera bateragarria dela basoetan zur hila nahikoa mantentzearekin.	3 000
19.- Intsektu saproxilikoaren garantzari eta zuhaizti hila edo zaharrarari dagokionez setsibilizazio kanpainak disenatzea eta egitea, populazio lokalari eta administrazioen pertsonalari zuzenduta.	4 000

3.- KUDEAKETAN LAGUNTZEKO TRESNAK

3.1.- Biodibertsitateari buruzko ezagutzak eta informazioa

NEURRIA EDO JARDUERA	KOSTUA (€)
20.- Aldian behin EUNIS landarearen mapa eta habitaten mapa eguneratzeko protokoloa zehaztea eta, horretarako, bereziki azpimarratzea bilakaera naturalak edo gizakiaren esku hartzeak eragindako aldaketak, bai eta azalera murriztuko eta aurreko kartografiatutako antzeman ez diren habitatei buruzko ezagutzen inguruko hobekuntzak sartzea ere.	1 000
21.- Barrundia udalerriak, dagoeneko badagoen instalazioan, liburutegia edo dokumentazio zentroa izan dezala sustatzea, KBEko eta inguruetako ingurumen informazioarekin, eta sortzen doan informazio berria eta dibulgazio-laburpenak sar dezala.	5 000
22.- "Basoko fauna eta florarako baliozko elementu naturalen, kulturalen eta geomorfologikoen inbentario zabal georreferentziatua" sortzea, besteak beste, zuhaitz hiletarako edo zuloak dituztenetarako, ur ibilera txikietarako, aldi baterako putzu eginda dauden lurretarako, urmaeletarako, heskaletarako, landa bideetarako, bideketarako, azaleratze geologikoetarako etab. Elementu bakoitza bereizteko, gutxienez, interesa eta koordenatu zehatzak adierazi behar dira.	2 000
23.- Habitaten eta babes bereziko araubidean dauden basa espezieen kontserbazio egoerari buruzko fitxa egitea, informazioa azkar erabili ahal izateko, Habitaten Zuzentzailearen 17. artikuluan ezarritako informazio estandarizatuaren berri emateko beharrik betetze aldera.	1 000
24.- Azterlan bat egitea tresna honetan jasotzen diren neurriak aplikatzeagatik errenta murrizten duten jarduerari eta, izatekotan, errenta galera hori orekatzeko zenbateko eta bitartekoei buruzkoa.	2 000



2016ko martxoa

21

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
25.- Aldaiako Mendiak KBEko dibertsitate ekologikoaren eta ekosistema autoktonoek ematen dituzten ingurumen ondasun eta zerbitzuen balio ekonomiko osoa aztertzea.		3 000
26.- Pozoidularik Egotekotan Jarduera protokoloa onartzea eta aditu-frogak egiteko gomendioekin dokumentu teknioa egitea.		1 000
27.- Urtero, Aldaiako Mendiak KBEtik eta bere Babes Eremu Periferikotik Martiodako Basoko Fauna Berreskuratzeko Zentroan sartzen diren basoko espezieen erregistroak bilduko dira.		-
28.- Herritarrei, abeltzainei, jabeei, basozainei, mendi elkartei, sindikatuari, ehiztariei, al baitarrei eta lurraldean dauden beste kolektibo batzuei erregistro hau egin dela jakinaraziko zale, hautemandakoa administrazio eskuduneko langileei jakinarazteko.		2 000
29.- Eskuratutako informazioaren bidez, istripu ugari guneen mapa egingo da. Aldian behin, mapa eguneratuko da eta neurri zuzentzaileak proposatuko dira, plan honetan eta hurrengoetan sartzeko.		1 000
30.- Urtero, basoko faunako heriotza ez naturalen, hartutako neurri zuzentzaileen eta horien emaitzen inguruko txostena egingo da, eta, horrela, interesa duten pertsonak eta erakundeak horretara jo ahal izatea bermatuko da.		1 000

3.2.- Komunikazioa, heziketa, partaidetza eta herritarren kontzientziakzioa

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
31.- Arabako Foru Aldundiaren web orrialdean Aldaiako Mendiak KBEari atal berezia eskaintzea eta hura eguneratzeko mekanismoa aurreikustea.		-
32.- Flora eta faunaren, habitaten eta prozesu ekologikoen kontserbazio neurriei eta, batez ere, bioaniztasunaren zaintzan laguntzea duten ohiko jardueren buruzko komunikazio eta informazio programa sortzea, eragina jasan dezaketen edo aktiboki neurri horietan inplikatu daitezkeen gizarte sektoreentzako. Barrundiako udaletxean eta udalerriko herriguneetako kontzejuei exeeetan, eta horiek hartarako baimena ematen badute, KBEari eta Natura 2000 Sareari buruzko informazio panelak jarriko dira.		8 000

2016ko martxoa

22

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
33.- KBEari eta haren helburuei buruz herritarrek duten ezagutza, jarrera eta jokabidea aztertzeako aldizkako ebaluazioak egitea; horrela, komunikazio, heziketa eta kontzientziatze ekintzak berriro orientatu ahal izango dira.		1 000
34.- Aldaiako mendietako KBEaren kudeaketan eta zaintzan zerikusia duten ingurumen eta sektore administrazioak elkartzeako foro bat sortzea eta garatzea: administrazio batzarra, udalak, Arabako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza...		3 000
35.- KBEan zaindu beharreko gaiak kontserbatzeari lotuta, baso kudeaketa jasangarriak sortzen dituen ingurumen onurei buruzko dibulgaziozko kanpainak garatzea.		3 000

3.3.- Gobernantza

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
36.- Aurreikusitako neurrietan ahalik eta eraginkortasunik handiena lortzeko, Foru Aldundiaren sailekin eta Eusko Jaurlaritzaren sailekin edo KBEan eskumenak dituzten beste administrazio batzuekin eta tartean diren udalekin eta administrazio batzordeekin beharrezko hitzarmenak eta gainerako koordinazio mekanismoak ezarriko dira.		-
37.- KBEa osorik edo zati batean aplikazio eremu duten kudeaketa agiriak berriro aztertuko dira, ehiza esparruen kudeaketa planak barne, naturgune honen kudeaketa agiriaren ezarritakoari egokitu daitezen.		-

3.4.- Hondatuta dauden eremuak leheneratzea eta konektibitate ekologikoa

NEURRIA EDO JARDUERA		KOSTUA (€)
38.- Inpaktuak (higadurak, legar hobi eta harrobi zaharrak, eta abarrekoak) jasan dituzten eremuak leheneratzea, eta espazio hauetan ingurumena leheneratzea.		40 000
39. Kontrolik gabeko isurketak eta bestelako eraginak jasaten dituzten guneak leheneratuko dira.		30 000

2016ko martxoa

23



40.- Lur pribatuen jabeekin akordioak sustatzea, konektibitate ekologikorako interesa duten espazioen kontserbazioa sustatzeko.	40 000
41.- KBE Inguruko guneetan edo horietatik hurbil daudenetan, gaur egun landaredi natural belarkaraz, zuhaixka formakoaz edota zuhaizkaraz estalita daudenetan, habitatak kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzak sustatzea.	2 000
42.- Inguruko nekazari guztiei heskaien eta horien kontserbazioaren garrantziaren berri ematea.	2 000

KOSTUA GUZTIRA.....

466 000 euro

2016ko martxoa

24